

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Giza baliabideei dagokienez, hasiera batean 5 lan-postu sortuko ditugu. Egunero hiruk, zortzi orduko turnoetan, txandaka, deiak jasoz eta telefonoari erantzunaz bulegoan egon beharko lukete etenik gabe. Larrialdietan, lasaitasunez eta enpatiaz bideratzen dakiten langileak izango dira.

Bulegoa, bezeroei irekia dagoen orduetan, 9-tatik 13-tara eta 16-tatik 20-tara, beste langile bat egongo litzateke ere lanean.

Baliabide fisikoei dagokienez, ez dugu gauza handirik behar: lokala, bi mahai, bi telefono (beste bat larrialdietarako), gune pribatu bat. Arazoak dauzkaten emakumeak etorriko balira, izkutuan hitz egin dezaketen, armairu bat, chip-ak gordetzeko, orriak, boligrafoak...

Baliabide teknologikoei dagokienez, ordenagailuak, softwarea eta chipak beharko genituzke, hau da, saldu nahi dugun produktua.

Finantza-baliabideei dagokienez, martxan jartzeko beharrezko errekurtsuak: Softwarea: 10.000€, ordenagailuak: 3.000€, bulegoa, soldatak (3 hilabetetarako kalkulua eginaz): 30.000€, 1.000 txip ekoizpena: 60.000€, denera: 90.000€.

S.L. bat eratuko dugu, 3000€-ko kapitalarekin, 47.000€-ko finantziazioa lortu beharko genuke. Gure produktua bideragarria da, iraunkorra da eta gizarte eragina du eta jasotako informazioaren arabera, erakunde desberdinen diru laguntza jasotzea bidezkoa dirudi: Donostia sustapena, Donostia INN programa, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak, ekintzaileentzat eta lan-postuak sortzen dituztenentzat, finantziazioa luzaro bitartez, start-up enpresentzat laguntzak, finantza entitateen finantziazioa...